

Gertaera gogoangarriak Gizarte-Babesean

80ko hamarkadan

- **Pentsioen balioa** handitzea KPlaren aldaketaren funtzioaren arabera.
- **Babes-ekintza handiagoa** estali gabeko taldeen prestazioak hedatzean eta Gizarte Segurantzako Sistemaren egonkortasun ekonomiko handiagoa.
- **Gizarte Segurantzako Informatika Gerentziaren** sorrera (**GSIG**)
- **Osasuneko 14/1986 Lege Orokorra**. Unibertsaltasun printzipioan oinarrituriko Osasun Sistema Nazionala eratzen du.

90ko hamarkadan

- **Kotizatu gabekoen Pentsioen arautzea** (Martxoaren 15eko, 357/1991 Errege Dekretua).
- **Gizarte Segurantzako legediaren arrazionalizazioa**, 1994ko Gizarte Segurantzako Lege Orokorren Testu Bategin berriaren bidez.
- **Toledoko Itunaren sinadura** (1995) indar politiko eta sozial guztien babesarekin. Egonkortasun finantzarioa eta etorkizuneko prestazioak ziurtatzeko bide-orri bat sortzen da.
- **Administrazio Elektronikoa**. Erakundeen egokitzapenaren hasierak teknologi berrietara.

2000tik aurrera

- **Erreserba Funtsaren** sorrera (2000) Sistemaren iraunkortasuna ziurtatzeko eta kontribuzio-prestazio kontuetan etorkizuneko beharrak erantzuteko.
- **Enplegu Sistema Nazionala** (2003), zeinean Enplegu Institutu Nazionala (EIN) ordezkatzan duen Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa (EEZP) sartzen den, enplegu politiken garapenerako.
- **Gizarte Segurantzza eta Egoitza Elektronikoaren Web** orrialdearen jaiotza eta garapena.
- **Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta besteen beharrean dauden pertsonak Zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea. Ongizate-Estatuaren laugarren euskarria**. Autonomia pertsonalaren sustapenerako eta besteen beharrean dauden pertsonen zaintzarako oinarritzko baldintzak finkatzen ditu.
- Urriaren 30eko, 8/2015 LEDak onarturiko **Gizarte Segurantzako Lege Orokorren Testu Bategin** berria.

NIPO: 859-18-019-2



SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL



40

 Urte

Gizarte-Babesaren



Gizarte Segurantzako



Aurrekariak

Babeseko politiken abiapuntua **Gizarte-Erreformen Batzordean (1883)** kokatzen da langileriaren hobekuntza eta ongizateari interesa zekizkien gauzen ikertzeaz arduratu zen.

1900ean lehenengo gizarte aseguruak sortu zen, **Lan-Istripuen Legea**, eta 1908an **Aurreikuspeneko Institutu Nazionala** sortu zen zeinean sortzen ari ziren gizarte aseguruak kudeatzen zituzten kutzak sartzen diren.

Ondoren, babesbideak zenbait gizarte-aseguruetan amaitzen dira, besteak beste, **Langile Erretiroa (1919)**, **Amatasuneko Nahitaezko Asegurua (1923)**, **Nahitaezko Langabezia Asegurua (1931)**, **Gaixotasun Asegurua (1942)**, **Zahartzaro eta Balioezintasunaren Nahitaezko Asegurua (ZBNA) (1947)**.

Aseguru hauek emandako babesa laster urri agertu zen, **lan-Mutualitateen** bidez antolatutako beste babeseko bideen agertzera eraman zuena, lan sektoreka antolatua eta aurretik zegoen babesa osatzeko helburua zuten prestazioak.

1963an Gizarte Segurantzaren Oinarrien Legea argitaratu zen zeinaren helburu nagusia giza babeseko eredu bateratu eta osatu baten ezartzea zen, banaketa finantzarioko oinarri batekin, kudeaketa publiko eta Estatuko partaidetza finantziarioan. Oinarri hauetako asko, **1966ko Gizarte Segurantzaren Oinarrien Legean** moldatu ziren.

Ondoren, **1972ko Babes Ekintzaren Finantzazio eta Hobetzearen Legeak** zeuden arazo finantzarioak saihesten saiatu zen, nahiz eta babes ekintza areagotzean berauek larriagotu, dagozkion baliabideak ezarri gabe estaldura finantzarioak eman zekizkienak.

(Maiatzaren 24ko 2065/1974 Errege Dekretua) Gizarte Segurantzako Oinarrien Legearen Testu Bategina, beste legeen artean 1966ko eta 1972koa bategin zituen, eta Gizarte Segurantzako Sistemaren kudeaketa erraztu zuen, zeinak kontrako nota batzuk zituen, hala nola, kudeaketa erakundeen ugaritasuna.

1978ko Konstituzio eta Institutio-Erreforma

Demokraziaren etorrerarekin Espainiara, eta **1978an Konstituzioaren** onartzea, Gizarte Segurantzako Sistemak eratzten zituen esparru desberdinetan zenbait erreforma eman ziren.



Konstituzioaren 41. Artikulua

“Botere publikoek herritar guztiarentzat gizarte segurantzako erregimen publiko bat mantenduko dute, beharrian egoeretan laguntza eta giza prestazioak bermatuz eta batez ere enplegu ezaren garaian. Laguntza eta gehigarriko prestazioak libreak izango dira.”

Lehenengoa **azaroaren 16ko 36/1978 Errege Dekretu Legearen** argitalpenarekin gertatu zen. Arau honek Moncloako Itunetan adostatutakoa jasotzen du, gardentasuna aldeko izateko gizarte eragileen instituzio-partaidetzaren sistema sortuz. Halaber, Gizarte Segurantzaren arrazionalizatu zuen eta kudeaketa sistema berri bat ezarri jarraiko erakundeen bidez:

- **Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala (GSIN)**
- **Osasuneko Institutu Nazionala (OIN)**
- **Gizarte Zerbitzuetako Institutu Nazionala (GZIN)**
- **Enpleguko Institutu Nazionala (EIN)**
- **Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra (GSDO)**

Gaur egun

1978an sorturiko erakundeek bilakaera izan dute eta gaur egun bere eskumenak hauek dira:

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala (GSIN)

Gizarte Segurantzako Sistemaren prestazioen kudeaketa eta administrazioan eskumenak dituen erakundea.

Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra (GSDO)

Berezko nortasun juridikoa duen ororen zerbitzua zeinean solidaritate finantzario eta kutxa bakarraren printzipioen ezarpenez, Gizarte Segurantzako Sistemaren baliabide ekonomiko guztiak eta administrazio finantzarioa batzen diren.

Osasun Gestiorako Institutu Nazionala (OGIN)

Garai bateko OINren eskubide eta obligazioen gestioa bere gain hartzen duen Gizarte Segurantzako erakundea halaber osasun prestazioak Ceuta eta Melillan.

Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutua (AGZI)

Garai bateko GZIN ordezkatzeko duen erakundea; Gizarte Segurantzako Sistemaren prestazioen zerbitzu osagarrien kudeaketan.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa (EEZP)

EINaren ondoren datorren Erakunde Autonomoa, eta Erkidego Autonomoen Enplegu Zerbitzu Publikoekin batera, enplegu politika aktiboaren garapenerako Enplegu Sistema Nazionala osatzen duten.

